



Turismo



EKINTZA PLANA DURANGOKO TURISMOA 2022-2026

EKINTZA-PLANA

Ekintza Plana Durangoko Turismo Iraunkorraren Plan Estrategikoaren hirugarren fasearekin bat dator.

Inboost Tourism KO aholkularitza

Iñigo Barañano

Ioar Galbarriatu

1. SARRERA
 - 1.1. AURREKARIAK
 - 1.2. METODOLOGIA
2. LIDERGOA
 - 2.1. EZARPEN ETA JARRAIPEN PROGRAMA
 - 2.2. TURISMO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIO PROGRAMA
 - 2.3. TURISMO KOORDINAZIO PROGRAMA
 - 2.4. LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUKO PROGRAMA
3. GARAPENA
 - 3.1. NATURA TURISMOKO PROGRAMA
 - 3.2. KULTURA TURISMOKO PROGRAMA
 - 3.3. NEGOZIO ETA EKITALDI TURISMOAREN PROGRAMA
 - 3.4. LEHIAKORTASUN PROGRAMA
4. MARKETING
 - 4.1. AGENDAREN HEDAPENA
 - 4.2. MATERIALEN EDIZIOA
 - 4.3. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK
 - 4.4. PRESENTZIA ETA ONLINE SUSTAPENA

#1

SARRERA

1. SARRERA

Durangoko Turismoko Ekintza Plana 2022-2026 dokumentua Inboost Tourism KO Durangoko Udalak eskatuta egiten ari den Durangoko Turismo Iraunkorraren Plan Estrategikoaren hirugarren zatia da.

Dokumentu honek, datozen lau urteetako jarduera-planak egiteko gida gisa balio behar du. Durangoko Udalaren eskaerari jarraituz, ekintzak diseinatzeko eta hurrengo lau urteetan (2022-2026) garatuko den **ekintza-planean** batzeko unea da.

Ekintza plana diseinatzeko, **hiru jardueratan** oinarrituko gara. Honako hauek dira:

LIDERGOA

Durangoko Udalak **erreferente izan behar du**, bai Durangoko sektore pribatuarentzat, baita gizartearentzat ere. Beraz, udalerriko turismo kudeaketaren ereduaren hobetzean lan egitea beharrezkoa da.

Sektore pribatua dinamizatu eta dezatominatzea, enpresaburuak tokiko turismo garapenaren partaide egitea eta tokiko kudeaketari buruzko mezu argi eta estrategikoak helaraztea dira abian jarri beharrezko jokabideak.

GARAPENA

Helmuga prestatu kontsumitzaileei helarazi aurretik. Bisita errazten duten baliabideak eta azpiegiturak izatea eta profesionaltasunez eskainitako aturismo eskaintza erakargarri, anitz eta iraunkorra izatea dira, bikaintasunera iristeko funtsezko alderdiak.

Helburua, bisitariak Durangon egindako egonaldiak oroitzapen positiboz beteta egotea da, gure helmugaren preskriptorea bilakatu dadin. Horretaako **prestatu** behar gara. Antzeman eta fidelizatu.

MARKETING

Eskariaren beharrei erantzungo dieten produktuak sortu, kontsumitzailearengana jo produktu horien berri emateko eta eskura jarri merkaturatzearen bidez.

Protagonista nagusia kontsumitzailea den sektore batean, marketina **estrategiaren bizkarrezurran** bihurtzen da, Komunikazio Plana strategiaren honen funtsezko zatia bihurtuz.

1. 2 METODOLOGIA

Ekintza plana garatzeko prozesuaren metodologia hauxe da:

1go eta 2. faseko emaitzak aztertzea:

- Analisia eta diagnostikoa
- Ildo estrategikoak

Lan dinamika:

- Ekintzak lehenestea
- Eskariaren arabera behar nagusiak antzematea

Ekintzen bilaketa:

- Eusko Jaurlaritzaren eta BFaren ildo estrategikoak
- Arrakasta kasuak
- Jardunbide egokiak
- Proposamen berriak

Balioztatze bilera:

- Behin behineko Ekintza Plana finkatzea

FASEAK	PROZESUA	TRESNAK
1. Ikerketa eta analisia	Turismo helmugaren eta haren ingurunearen identifikazio eta azterketa.	Egindako azterlanak aztertu, landa-azterketa, inkestak eta elkarizketak, bilerak.
2. Estrategiaren diseinua	Durangoko turismo estrategia jasangarria diseinatzea.	Analisia eta diagnostikoa, bilerak, gizartearekin eta teknikariek batera lan egiteko dinamikak.
3. Ekintza Planaren sorkuntza	Ekintza espezifikoaren definizioa eta ekintza planaren diseinua.	2. faseko ildo estrategikoak, jardueren eta zereginen definizioa, bilerak eta lan-dinamikak.

#2

LIDERGOA

2.1 PLANAREN EZARPEN ETA JARRAIPEN PROGRAMA

LABURPENA

Turismo Plana kudeatzeko eredu bat definitzeko eta plana gauzatzeko pertsonaz edota aurrekontu egoki batzuez osatutako egitura bat izateko planteatutako ekintzak aurkezten dira.

Plana behar bezala garatzeko, langileak indartzea eta turismoari eskainitako aurrekontua handitzea komenigarria litzateke.

Planean zehaztutako ekintzak garatzeaz gain, horien jarraipen bat egitea proposatzen da, helburu neurgarriak edo KPlak definituz.

ARDURADUNA

Durango Udalak

EKINTZAK

Turismo Plana abian jartzeko behar den egitura zehaztu.
Durango turismoaren kudeaketa sistematizatuko duen kudeaketa eredu finkatu.
Urteko Ekintza Planarekin bat datozen aurrekontuak onartu. Langileak indartu.
Jarraipen sistema bat definitu: Planaren eta urteko KPlen kontrola
Durango onuragarriak izan daitezkeen diru laguntzak aztertu.

2.2 TURISMO ESTRATEGIAREN

KOMUNIKAZIO PROGRAMA

LABURPENA

Horrelako proiektu batean garrantzitsua da hasieratik bertako kide guztien inplikazioa, parte hartzea eta laguntza izatea, bere garapenaren arrakastarako eta ondorengo inplementaziorako funtsezko elementuak bait dira.

Horretarako, Durangoko Turismo Iraunkorraren Plan Estrategikoa bai erakunde eta entitate publikoei, baita udalerriko sektore turistikoari aurkeztea proposatzen da, aitorpen instituzional, politiko eta soziala lortu eta, hala eskatuz gero, inplikazio edota parte hartzea lortzeko asmoz.

Helburu horietarako aurreikusitako ekintzak, aurkezpen, bidalketen, bileren edo lan jardunaldien bidez garatu daitezke, non plan horren aurkezpen edota azalpen bat eman al den.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua.

EKINTZAK

DTIPEa udal ordezkari eta teknikariei aurkeztu.
Komunikazio Plana udal ordezkari, herritarrei, sektoreko eragileei eta udalerriko sektoreei aurkeztu.
Durangoko jarduera turistikoko plana LGE, BFA eta Basquetourri aurkeztu.

2.3 TURISMO KOORDINAZIO PROGRAMA

LABURPENA

Urkiola LGEaren turismo sailarekin partekatutako turismo kudeaketako eredua sustatzeko aurreikusitako ekintzak aurkezten dira, Durangok, turismoaren eskualde kudeaketan duen presentzia, bereziki maila teknikoan, indartuz.

Eskualdeko turismo kudeaketako erakundearekin lan-esparruak sortzeko, maila teknikoan aldizkako bilerak proposatu, planifikatu eta eginez gara daitezkeen ekintzak.

Durangotik turismo proiektu eta ekintzak aurkeztu ahal izango dira, tokian tokiko lana egin ondoren, Urkiolako LGEaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenetan sartu ahal izateko eta finantzaketa ahalbidetzeko.

Era berean, proiektu, produktu edo zerbitzu komun bati lotutako intereseko udalerriekin aliantza estrategikoak sortzea baliostea planteatzen da, elkarrenganako lana bultzatuz eta sinergiak sortuz.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua.

EKINTZAK

LGEko turismo arloaren eta Durangoko Turismo Bulegoaren arteko koordinazioa, jarduerak planteatu eta garatzeko.
Durangon planteatutako turismo proiektuak LGE-ri helarazi, eskualdeko plangintzan integratzen saiatzeko.
Hainbat erakundek sustatutako turismo-arloko diru laguntzen erakarpena indartu.

2.4 LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUKO PROGRAMA

LABURPENA

Erakunde publiko eta pribatuen artean batasun eta lankidetza handiagoa sortzerko ekintzak aurkezten dira, sektorearen profesionalizazioa sustatuz eta udalerriko sektorearen artean bertako baliabideen eta zerbitzuen ezagutza areagotuz.

Sektorearen batasun hori, Fam Tripa bezalako ekintza parte hartzaileen bidez lor daiteke, non udalerriaren beraren eta bere baliabide turistikoaren ezagutza handitzeaz gain, parte hartzaileen harremana sustatzen den.

Kanpora egiten diren formakuntza bidaiak, empresa/entitateen arteko batasuna sustatzeko tresnak dira, non helmugari aplikatu dakizkiokeen arrakasta kasuak ezagutu eta inplikaturako enpresek edota erakundeek baterako proiektu baten alde lan egiten duten lan-jardunaldiak antolatzen diren.

ARDURADUNA

Durango Udalaren Turismo Zerbitzua / Urkiola LGE

EKINTZAK

Helmuga ezagutzeko barneko Fam Tripa antolatu
Proiektu bakoitzeko talde publiko-pribatuak sortu
Kanpoko helmuga batra prestakuntza bidaia egin
Ekintza planaren aurreko urteko lanaldia

#3

GARAPENA

3.1 NATURA TURISMOKO PROGRAMA

LABURPENA

Aurreikusitako ekintzak aurkezten dira, Durangotik natura-eskaintza irizpide turistikoen arabera definituz, profilen arabera tokiko mendi-ibilien eskaintza balioetsiz, desestazionalizatu eta bisita-motibazio berriak eskaintzeko helburuarekin.

Baliabideak hierarkizatzea beharrezkoa da (bidezidor eta intereseko elementu naturalak), turismo mailan interesgarrienak direnei balioa eman eta seinalizatzeko.

Turismo aktibo eta esperientzietan oinarritutako naturazko produktu turistikoa egituratu egin behar da bisitariari eskaintzeko.

Hartzailearen arabera bereizitako bi xendazaletasun proiektu proposatzen dira. Bata, familiakoentzat edo zailtasun txikiko xendazaletasuna, eta, bestea, mendi-ibilientzako, non baselizetako bidea koka daitekeen. BTTan egiteko ibilbideen inguruko eskaintza ere osatu eta eguneratu beharko litzateke.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua

EKINTZAK

Barne hierarkiaren definitutako natura baliabideen inbentarioa zehaztu, turismo eskaintzaren araberrako lehentasunezko esku hartze maila ezarriz.
Naturako turismo produktuen eskaintzan sar daitezkeen zerbitzuak identifikatu eta eskaini (esperientziak eta Durango Turismo Aktiboa)
Xendazaletasun familiarreko targetean zuzendutako ibilbideen proiektua finkatu eta abian jarri.
Mendi ibilbideen profileraz zuzendutako proiektua diseinatu eta martxan jarri. Ermiten ibilbidea.
BTT proiektuaren eguneratzea.
Mendi ibilbideetako erakundeekin lankidetzan aritu.

3.2 KULTURA TURISMOKO PROGRAMA

LABURPENA

Udalerriko eta eskualdeko gainerako eskaintza turistikoarekiko kultura eskaintza erakargarri, bereizgarri eta osagarria eratzeko ekintzak aurkezten dira, turistak, txangozale, zein tokiko eta eskualdeko biztanleriak ezagutu dezan.

Udalerriaren kultura baliabide eta nortasunari balioa emateko modua da, bisitariak erakarri eta tokiko zein eskualdeko biztanleengana hurbiltzeko bide gisa.

Horretarako, honako hau planteatzen da:

1. Bisitagarriak diren baliabideen mantentze eta agian handitzea, lehenengo eta behin guztien inbentarioa egin eta ondoren baheketa edota lehentasuna emanaz, bisitariak zein turistak gehien eskatzen dituztenetan oinarrituz eta targetari formatu erakargarrian eskainiz.
2. Santa Ana kanpandorrea bizitzeko proiektuari berriro ekin edo Santa Ana elizpea egokitu.
3. Errotako kaltzoa edo garbitoki zaharrak lehengoratzeari lehenetsi beharreko ekintzak izango dira, baita aurrekontuan sartu beharrekoak ere.
4. Udalerriko baliabideen seinalizazio plana garatu, irizpide turistikoekin eta estetika eta informazioa bateratuz.
5. Durangoko historiari balioa eman 3Dko argazki ibilbide baten proiektuaren bidez.
6. Eskaera handiko aldi zehatzetan erregularitasunez eskaintako bisiten programa diseinatu, gutxieneko taldea finkatuz eta aurretik erreserbatu behar barik.
7. Durango edertzeko ekintza plana egin.
8. Turismo Bulegoaren espaziorako eskaintza garatu, hura dinamizatzeko ikuspegi turistikoa duten tailerrekin (ehungintza), erakusketekin edota chill out gune edo topaleku batekin.
9. Ate irekien programa burutu, bizilagunei bisitak eskaini eta tokiko biztanleen artean eskaintzaren ezagutza areagotu, hauek preskriptore gisa jarduteko.
10. Bisita antzeztuak antolatu, bisiten eskaintza handitu eta dibertsifikatzeko. Eskaintza horrekin gai berriak garatzea komenigarria litzateke, hala nola heresia.
11. Durangoko Azoka markapean jardueren dibertsifikazioa sustatu, inpaktua handitzeko.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua.

EKINTZAK

Barne hierarkiaren definitutako ondare baliabideen inbentarioa zehaztu, turismo eskaintzaren araberako lehentasunezko esku hartze maila ezarriz.
Estetika eta irizpide bateratuak dituen baliabide turistikoen seinalizazio plana.
Argazkigintza digitalean oinarritutako 3D ibilbide baten bidez Bonbardaketaren balioa nabarmendu.
Bisita programa goi denboraldian.
Durangoko edertze Ekintza Plana.
Durangoko turismo bulegoaren espazioaren ustiapena. Tailer edo erakusketen eskaintza, chill out gunea, topagune gisa eskeini.
Ate irekien programa.
Santa Ana kanpadorrera bisita.
Bisita antzeztuak antolatu, gaia heresia izanik.
Durangoko Azokako jardueren dibertsifikazioa sustatu.

3.3 NEGOZIO ETA EKITALDI TURISMOAREN PROGRAMA

LABURPENA

Negozio eta ekitaldietako turistei zuzendutako eskaintza turistikoa eratzeko ekintzak aurkezten dira, haien beharrei erantzuteko helburuarekin, gaur egun Durangoko errealitatea dela jakinik .

Horretarako, turistaren profil horri buruzko azterlana egin behar da, eta jakin zer nahi duten eta zeintzuk diren helmugarekiko haien interesak turismo eskaintza egokia sortzeko.

Bigarren fasean, sektoreak berak eskaintzen dituen zerbitzuak turistaren profil horretara egokitzeko lan egingo da.

Ekitaldietara doazen bisitariei dagokienez, turismo, merkataritza eta ostalaritza eskaintza programetan sartu eta ostatuetan eta bisita espazioetan eskaintza hori zabaltzea komeni da.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua.

EKINTZAK

Negozio-turismoak duen profilari, jokaerari eta beharrei buruzko azterlana egin.
Udalerriak eta eskualdeak antolatutako ekitaldien antolaketa parte hartu eta laguntzea.
Tokiko merkataritzaren eskaintza turista eta ekitaldietara doazen bisitarien artean sustatu.
Turismo eskaintza zabaltzeko Durangon egindako ekitaldietan.

3.4 LEHIAKORTASUN PROGRAMA

LABURPENA

Udaleko turismo zerbitzua eta sektorea profesionalizatzeko aurreikusitako ekintzak aurkezten dira, haien ezagutza eta lehiakortasuna areagotuz.

Horretarako, formakuntza da gakoa, hainbat modutan gerta daitekeena. Formakuntza planen bidez Durangoko Udalak, Urkiola LGEak, Bizkaiko Foru Aldundiak edota Eusko Jaurlaritzak antolatutakoak; kalitate edo ekintza egokien programen bidez, lan jardunandi edo foroen bidez, edota turismo sektorearekin lotutako azoka eta ekitaldietan parte hartzearen bidez ere.

Ekintza horiek, era batera edo bestera, parte hartzaileen ezagutza sustatzen dute, eta turismo-sektorearen eta horrek dakarren guztiaren ikuspegi zabalagoa eta osatuagoa ematen dute (negozioa, helmuga, turistak, merkatuak, etab.).

Basquetourren Kode Etikoan eta bestelako programa berrietan parte hartzea proposatzen da. Horretarako, baliabide edo aurrekontu egokiak esleitu behar dira.

ARDURADUNA

Durangoko Udala.

EKINTZAK

Formakuntza pertsonaleko plana
Sektorerako formakuntza plana
Azoka eta foroetan parte hartzea
Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Basquetourren formakuntza programa

#4

MARKETING

4.1 AGENDAREN HEDAPENA

LABURPENA

Bai tokiko sektoreari eta herritarrei, baita turista edota txangozaleari ere, Udalerriko kultura eta aisialdi eskaintza zabaltzeko aurreikusitako marketing ekintzak aurkezten dira.

Eskaintza horren ezjakintasun-mailari erantzuteko, beharrezkotzat jotzen da eskaintza hori zabaltzea, sustapen- eta komunikazio-estrategia batean oinarrituz.

Erabili beharreko bideak online (sare sozialak, newsletterrak, etab.) zein offline (postontzietan, displaysak, etab.) izan daitezke, ahalik eta erabiltzaile gehienengana iritsi ahal izateko, bai lokalak/errealak, baita kanpokoak/potentzialak ere.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua

EKINTZAK

Urteko ekitaldi programa diseinatu, egutegi batekin eta sustapen eta komunikazio plan bati lotuta.
Durangoko kultura eta aisialdi eskaintza hirugarrenen agendetan sartu (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia)

4.2 MATERIALEN EDIZIOA

LABURPENA

Informazio euskarriak, online zein offline formatokoak, erabiltzeko aurreikusitako ekintzak aurkezten dira, non udalerriko turismo intereseko baliabide nagusiei buruzko informazio praktikoa jasoko den, baliabide horiek modu erakargarrian erakusten lagunduko duen material grafikoarekin batera.

Euskarri horien bidez, erabiltzaileak udalerriak bere eskura jartzen duen guztiaren berri izan ahalko du.

Udalerriaren eskaintzari buruzko informazioa zabaldu eta balioa emateko modu bat da, haren berri izateaz gain, turistak erakarri edota hain egonaldiaren luzapena sustatzeko balioko duena.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua.

EKINTZAK

Produktu berrien edukiak idatzi. Materialen diseinu. edizio eta inprimatzea.
Argazki eta bideo bankua landu.
Hedapenerako materialak berrargitaratzea.

4.3 KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK

LABURPENA

Komunikazio-estrategia egokia garatzeko aurreikusitako ekintzak aurkezten dira, komunikazio kanal eta euskarri posible guztiak erabiliz.

Udaleko komunikazio-zerbitzuarekin estrategia bateratu bat garatu behar da. Horretarako, hedabideak aztertu eta helburuak lortzeko egokienak hautatzea proposatzen da.

Eduki egokiak sortu (irudi eta testuen edizioa), gero norberak erabili eta hirugarrenei emateko.

Publicity estrategia eta alderantzizko famen kostua diseinatu eta aurrekontuan sartu.

Urteko social media plana. Sustapen plana. Kanpaina propioak edo LGE, Basquemountains, Bizkaiko Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritzarenak, besteak beste.

Durango udalerriko turismo eskaintza turismo-bulegoen bidez (Elorrio, Bilbo) eta beste erakunde batzuek antolatutako azoka eta ekitaldien bidez (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) zabaltu.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua. Udalaren komunikazio zerbitzua.

EKINTZAK

On eta offline estrategia diseinatu.
Material grafiko eta erredakzioko editatu, kudeatu eta on eta offline hedabideetara zabaltu
Hedapen kanpaina sustatua (eduki grafikoa eta idatzia) on line komunikabideetan.
Publicity plan eta aurrekontua.
Urteko social media plana.
Publizitate kanpainak eta turismo eskaintzaren hedapena.

4.4 PRESENTZIA ETA ONLINE SUSTAPENA

LABURPENA

Durangoko online posizionamendua hobetzeko aurreikusitako ekintzak aurkezten dira.

Horretarako, udalerriari buruzko eduki digital berria sortzea planteatzen da, eta, ondoren, online sustatu eta zabaltzea, besteak beste, web-orriaren, sare sozialen edo e-mail marketineko ekintzen bidez. Era berean, bere online presentzia turismo edo sektoreko webgune ofizialetan hobetzea planteatzen da.

Udalerriaren presentzia bultzatzea eskualdeko kanpainetan edota beste proiektu batzuetan, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren kanpainetan ere, hirugarrenen webguneak ahaztu gabe.

Lurraldearen hartzaileekin edo influencerrekin akordioak sortzea ere planteatzen da, udalerria eta haren turismo eskaintza ezagutarazteko.

ARDURADUNA

Durangoko Udaleko Turismo Zerbitzua

EKINTZAK

Turismo webgune berria sortu.
Eskualdeko eta Basquemountains-eko kanpainetan parte hartu, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren edota Eusko Jaurlaritzaren kanpainetan ere.
Barneko Newslettera.
Kanpoko Newsletterra.
Turismo ofizialetako eta sektoreko webguneetan presentzia hobetu.
Lurraldeko gida turistiko eta hartzaileekin akordioak lortu.